BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

4068

AGINDUA, 2012ko uztailaren 16koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, «Aramaixo Basarri Barri «ABB» Fundazioa» fundazioaren eraketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

«Aramaixo Basarri Barri «ABB» Fundazioa» fundazioaren eratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatuz aurkeztutako espedientea ikusi eta aztertu da. Hona hemen

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2011ko abenduaren 12an, Justizia eta Herri Administrazio Sailean eskari bat sartu zen, «Aramaixo Basarri Barri «ABB» Fundazioa» fundazioaren eratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko (Aramaioko Udalak sortu zuen fundazio hori). Eskariari espedienteko agiriak erantsi zitzaizkion.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Aholku Batzordeko Batzorde Teknikoa bildu zen fundazioaren helburuak zilegi eta guztiontzako onuragarri direla egiaztatzeko, eta fundazioa erregistroan inskribatzearen aldeko txostena eman zuen 2012ko otsailaren 15ean.

Hirugarrena.– Inskripzio-espedientea izapidetzeko eskatutako dokumentazio osagarriaren azken aldaketak 2012ko uztailaren 3an bidali ziren Erregistro honetara.

Laugarrena.– Honako hauek dira fundazioaren helburuak, estatutuen 3. artikuluan ezarritakoaren arabera:

«ABB» fundazioaren helburua Aramaioko udalerriaren garapen ekonomiko, sozial eta kulturala da. Fundazioak ez du inolako irabazi-asmorik.

Eta horretarako, honako hauek egitea dagokio:

a) Mota guztietako jarduera ekonomikoak sustatzea, finantzatzea eta burutzea, zuzenean edo zeharka.

b) Aramaioko udalerriaren alde egingo duten, eta, bereziki, udalerri horretako lehen eta hirugarren sektorea sustatzen eta garatzen lagunduko duten jarduera eta proiektuak kudeatzea, sustatzea eta horiek finantzatzen eta gauzatzen laguntzea.

c) Prestakuntza-jarduerak, jolas-jarduerak, eta, oro har, Aramaioko bizi-kalitatea garatzen eta mantentzen lagunduko dutenak antolatzea, garatzea edo bultzatzea.

Bosgarrena.– Estatutuetako 5. eta 6. artikuluek diotenez, fundazioaren egoitza Aramaion (Araba) dago (Eguzkierripa auzoa, z/g), eta batik bat udalerri horretan garatzen ditu bere jarduerak.

Seigarrena.– Hasierako dotazioa bost mila (5.000) eurokoa da, eta kopuru hori ordaindu dela jasota geratu da erregistro-inskripzioan, hala agintzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko

Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 37.1.c) artikuluak.

Zazpigarrena.– Patronatuari dagokio fundazioa ordezkatzea, administratzea eta gobernatzea. Patronatuko kideek doan beteko dituzte beren egitekoak, fundazioaren estatutuetan xedatutakoaren arabera.

Patronatuko kideak, hasieran, fundazioa eratzeko eskrituran ezartzen denez, hauek izango dira:

Kargua	Patronatuko kideak	Indarraldia
	Ramón Ajuria Uranga, Aramaioko Udaleko alkate-lehendakaria	2015-09-15
	Lierni Altuna Ugarte, Aramaioko Udaleko zinegotzia	2015-09-15
	Ane Miren Echebarria Mendizabal, Aramaioko Udaleko zinegotzia	2015-09-15
	Jon Errasti Elgarresta	2015-09-15
	Mikel Oceja Acha	2015-09-15
	Alexander Mendikute Ibabe	2015-09-15
	Iker Olaziregi Kortabarría	2015-09-15
	José Luis Lagasa Arriaran	2015-09-15
	Pedro Miguel Lizarralde Iturbe	2015-09-15
	Jesús Arregi Bengoa	2015-09-15
	Félix Ajuria Ochandiano	2015-09-15

Guztiek onartu dituzte beren karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluan ezarritako moduetariko baten arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio Fundazioaren eraketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala agintzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikuluan, eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuaren 4. artikuluan.

Bigarrena.– Horretarako legitimazioa daukan pertsona batek sustatu du espedientea. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datuak eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki bete da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36., 37., 38. eta 39. artikuluetan ezarritakoa. Aplikagarriak diren legeetan eta erregelamenduetan ezarritakoarekin bat etorrita eratu da fundazioa.

Ikusirik aipatutako arauak eta, oro har, kasu honetan aplika daitezkeen gainerako arauak, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Honako eraketa hau Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko agintzea, egun honetan eta F-318 erregistro-zenbakiarekin: Aramaioko (Araba) «Aramaixo Basarri Barri «ABB» Fundazioa» fundazioaren eraketa, eta bai Patronatuaren hasierako osaera ere. Patronatu horren kideak zazpigarren aurrekarian agertzen dira. Kideok espresuki onartu dituzte euren karguak, 2011ko irailaren 15ean, EAEko Notarioen Elkargoko Antonio Román de la Cuesta Gáldiz notarioaren aurrean egiletsitako eskritura publikoan xedatu bezala (protokolo-zenbakia: 723).

Bigarrena.– Fundazio hori, beraren helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 4. sekzioan sailkatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 2.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, eta interesdunei bidaltzea.

Agindu honek administrazio-bideari amaiera ematen dio, eta, beraren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, hil biko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 16a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.